

Irakurzaletasuna bultzatzeko 'Ipuinaren ordua' antolatu dabe Nabarnizen

Nabaznizko Udalak 'Irakurri eta gozatu' izeneko kanpaina antolatu dau, herriko ume eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz. Ekimena ekintza ezbardinaz osotuta dago, eta datorren hilean hasita abendura bitarte garatuko da, Gizarte Etxean.

Programa 7 eta 18 urte bitarteko gaztetxoentzako ilustrazio tailerragaz hasiko da. Ikastaroa urriko barikuetan egingo da, 18.00etatik 19.30etara arte. "Marrazteko teknikak eta kreatibitatea sustatuko dira horretan", aurreratu dabe. 'Ipuinaren ordua', izenadun ekimena, bestalde, herriko familiei zuzenduta egongo da eta azaroaren 11 eta 25 eta abenduaren 16an garatuko da, 18.00etan hasita. Antolatzaileen esanetan, "guraso eta aitona-amonak umeei ipuinak kontatuko deusez, eurek txikitan nagusingandik entzundakoak edo bibliotekatik hartutakoak izan daitezke".

Narrazioa egiten dan bitartean, irudiak proiektatuko dabez. Ekintzaren bigarren zatian, umeak izango dira kontukontalariak eta, saioa amaitzerakoan, sari bana jasoko dabe. Ganera, euskal motologiaren ganeko kontuetaz disfrutatzeko aukera be eukiko dabe, interneten bidez. 'Irakurri eta gozatu' kanpainaren barruan lehiaketa bi izango dira be bai; bata, ipuinena eta bestea, ilustrazinoena. Sari banaketa abenduaren 8rako antolatu dan ekitaldiaren barruan burutuko da.

Nabarnizko Udalak Euskararen Astea antolatu dau, aurten lehenengoz, abenduaren 3tik 10era. Euskaren Nazioarteko eguna aitzakitzat hartuta 'marmo' edo mozerro eguna ospatuko dabe herritarrek, abenduaren 3an. Aritza Bergara idaleak, bere aldetik, euskal mitologia mintzagai hartuta berbaldia eskainiko dau 18.30ean.

Ostean, trikipoteoa egingo da eta Txan Magoaren ikuskizuna izango da. Horreez ganera ipuin kotalariak eta Zugarramurdira txangoa be antolatu dabez.